

**“GABON ZAHARRETAKO FERIA”- ELGOIBARKO UDALA
NORBERAK LANDATUTAKO PRODUKTUEN
SARIKETA-ERAKUSKETAREN ARAUAK.
2024ko ABENDUAREN 28an - LARUNBATA**

Partaideak:

Nekazaritza Ustiapen Txartela aurkezten duten baserritarrak, tokia baldin badago.

Sarituko diren salgaiak:

Norberak landatutako frutak eta barazkiak. Gutxienez, lau barietate aurkeztuko dira.

Erakusketa:

Kalegoen plazan, horretarako propio jarritako saltokietan.

Orduak:

Goizeko 7:00etan hasiko dira salgaiak jartzen, eta 9:00etarako prest egongo dira; ordu horretan pasatuko da eta epaimahaia. 14:30ean postua jaso egin beharko da.

Salmenta:

Epaimahaiaren erabakia jaso ondoren hasiko da salmenta, gutxi gorabehera, 10:30ean.

Dietak:

Lehiaketan parte hartzen duten guztiei 150 euroko dieta emango zaie; baldin eta, gutxienez, lau barietate erakusten badituzte.

Epaimahaiak 250 euroko 9 dieta “berezi” eman ahal izango ditu, barazki eta fruten barietateagatik eta kalitateagatik.

Sariak:

Honako sari hauek emango dira:

	Barazkiak	Frutak
1.	600 €	600 €
2.	500 €	500 €
3.	400 €	400 €

Saltokirik onena	600 €
Benekotasuna eta berrikuntza	600 €
Mendiak hobekien zaintzen dituen Elgoibarko baserria	500 €

Sariak emateko orduan, honako baldintza hauek hartuko dira kontuan: salgaien kalitatea, mota ezberdinetako salgaiak erakutsi eta saltzea, mota bakoitzeko aldaera edo barietate desberdinak erakutsi eta saltzea.

Baserrian bertan ekoiztutako produktuek bakarrik jasoko dute saria. Epaimahaiak saririk ez emateko eskubidea izango du, salgaiak baserrikoak ez direla egiaztatuz gero.

Eztia, ogia, txerrikiak...:

Bereziki prestatutako saltokietan jarriko dira.

Udalak erabakiko du erakusketari bakoitzak zein saltoki izango duen. Epaimahaiak hala baderitzo, sariak eman gabe

laga daitezke. Sariketa-lehiaketan parte hartzeko, baldintza hauek onartu egin beharko dira.

Izena emateko epea abenduaren 2an bukatuko da.

Kultura Saila: Tel.: 943-74.21.58
e-maila: kultura@elgoibar.eus